

## **EAEko IRAKASLEAK**

### **EPE 2023 LANBIDE HEZIKETAKO SEKTORE BEREZIAK**

Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoan hautaketa-prozeduran jardun behar duten epaimahaien osaketa argitaratu da Hezkuntzako [web orrian](#).

### **LEKUALDATZE-LEHIAKETA**

Irakaskuntza ertainetan, behin-behineko lanpostu hutsen [aldaketak](#) argitaratu dira.

## **EAEko IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK**

### **2023-2024 ORDEZKOGAIEN BIRBAREMAZIOA**

Behin-behineko zerrendak: otsailaren 2an.

**Erreklamazioak ONLINE** egiteko epea: **otsailaren 3tik 9ra (biak barne)**

Prozesuarekin erlazionatutako edozein informazio, Hezkuntzako [web orrian](#) eta Hezigunean izango duzue.

### **HAUTESKUNDE SINDIKALAK**

Urtarrilaren 31n hauteskunde sindikaletarako mahaiak osatu ziren eta hautesleen behin-behineko errolda gauzatu zuen administrazioa publikoak. Informazioa eskuragarri dago [Hezigunean](#), hauteskunde sindikalak atalean.

Errolda horretan, **urtarrilaren 31n zerbitzu aktiboan** zegoen **langile guztiak** agertu behar dira.

**ADI! Langileek erroldan agertzen direla ziurtatu** behar dute. Errolda kontsultatzeko gida **STEILAS**en [web orrian](#) eskuragarri dago. Bestalde, [hauteskunde-mahaiak](#) kontsultatu daitezke.

**Erreklamazioak** egiteko epea: **2023ko urtarrilaren 31tik otsailaren 7ko 12:00etara**. Posta elektronikoz gauzatu behar da: **hezk.sind@euskadi.eus**

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAN MATRIKULATU!!!**